

Natur Zientziak DBHn

1. Oinarrizko datuak

- **Modulua:** Espezifikoa II
- **Izaera:** Hautazkoa
- **ECTS kredituak:** 3
- **Iraupena:** 3 aste
- **Irakaslea:** Ainhoa Latatu Nuñez

2. Ikasgaiaren azalpena eta testuingurua

Ikasgai honek Natur Zientziak DBHn lantzeko oinarriak aurkeztu nahi ditu, batez ere Natura Zientziak ikasgaiari erreparaturik. Helburu horrekin, Fisika, Kimika, Biologia edo Geologia testuinguruko gaietan oinarrituz, Zientzia Esperimentalen didaktikaren funtsezko alderdiak aztertzeari ekingo diegu: aurrezagutzak eta kontzeptu berriak sartzea, zientzietako metodologia eta baliabideak edo ebaluazioa.

Edukiaren muina curriculumaren neurrian, arreta berezia jarriko da euskal curriculumean eta konpetentzia digitalen garapenean.

3. Konpetentziak

- Natur Zientziak ikasteari lotuta dauden balio hezitzaile eta kulturalak ezagutu eta erabili.
- Zientzien historia erabili, zientziaren ikuspegi lineal eta problematikoa gainditzeko.
- Natur Zientzien ezagutza formala Zientzia/Gizartea/Teknologia testuinguruetan aplikatu.
- Natur Zientziak DBHn irakasgaiaren irakaskuntzan sortu ahal diren arazoei aurre egiteko prozedurak eta errekurtsoak ezagutu eta erabili: metodologia, ebaluazioa...

4. Ikas-emaitzak

- Natura Zientzietako curriculumaren lantzeko proposamen didaktikoak egiten jakingo du
- Gure jardunean Euskal Curriculumaren txertatzeko aukerak proposatzen jakingo du.
- Gure irakasle jardunerako informazioa bildu, klasifikatu eta gordetzearen garrantzia ikusiko du.

5. Edukiak

- Curriculumeko gidalerroak
- Euskal Curriculum lantzeko aukerak
- Konpetentzia digitalak eta baliabide digitalak
- HAUTAZKOA: Euskal kultur Sorkuntzaren Transmisioa

2. PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA NATURA ZIENTZIETAN

- Programazio didaktikoa: oinarriak
- Ikasleen aurrezagutzak eta aldaketa kontzeptuala
- Zientziaren historia, baliabide didaktiko gisa
- Ebaluazioa

3. IKERKETA BIDEZKO IKASKUNTZA eta ARGUMENTAZIOA

- Argudiaketa curricularra
- Metodo zientifikoa eta ikerketaren faseak
- **Irakasleen etengabeko prestakuntza eta ikaskuntza**

6. Metodologia

Ikasgaiak **ikaskuntza autonomo eta esanguratsua** bultzatuko du **metodologia aktibo** baten bidez, eta UEUren online ikas-irakaskuntzarako eredu pedagogikoan oinarrituko da. Alderdi teorikoa eta praktikoa uztartuko ditu, arreta ikaskuntza-prozesuan eta konpetentzietan jartzeko.

7. Tutoretza

Tutoretza-saioen helburua ikasgaiaren inguruko zalantzak argitzea izango da. Bideo-bilera sinkronoak izango dira, eta, ikasgaiak irauten duen bitartean, bi egingo dira gutxienez. Saioen egunak eta ordutegia irakasleak proposatuko ditu Ikasgela Birtualean.

8. Ebaluazioa

Ikasgaien ebaluazioa jarraitua eta hezitzailea izango da. Kalifikazioetarako, gai bakoitzeko zereginak, azken produktua eta parte-hartzea baloratuko dira. Ikasketa-prozesuan zehar eginiko hausnarketa pertsonalei eta talde-dinamikan eginiko ekarpenei ere garrantzia emango zaie.

9. Bibliografia

LIBURUAK

Arroyo-Sagasta, A. (2017). Docentes y escuelas que aprenden en la Red: estudio sobre competencia digital, entornos personales de aprendizaje y entorno organizacional de aprendizaje de Arizmendi Ikastola (doktorego-tesia). UNED, España.

Cañal, P. et al. (2011). Didáctica de la Biología y la Geología, Graó.

Lopez-Diaz, M.C. (2014). Detección de preconceptos erróneos en la materia de Biología entre el alumnado de Educación Secundaria (TFM). UNIR.

Pujolas, P. (2013). 9 Ideas Clave. El aprendizaje cooperativo. Graó.

Repetto Jimenez, E. (2007). La historia de la Ciencia: su utilización como recurso didáctico. Manuales docentes de Educación primaria (21). Universidad del Las Palmas de Gran Canaria.

ARTIKULUAK

Banet, E. (2000). La enseñanza y el aprendizaje del conocimiento biológico. En F. J. Perales y P. Cañal de Leon (Comps.), Didáctica de las ciencias experimentales. Teoría y práctica de la enseñanza de las ciencias (pp. 456-466). Alcoy: Marfil.

Caballero, M. (2008). Algunas ideas del alumnado de Secundaria sobre conceptos básicos de genética. Enseñanza de las Ciencias, 26(2), 227-244.

García, C. (2012). Zientzia-hezkuntza Ekimena EAEn. Ikastorratza, e-Revista de Didáctica 8,

Jimenez, M.P. (2000). Modelos didacticos. En F. J. Perales y P. Cañal de Leon (coord.) Didáctica de las ciencias experimentales teoría y práctica de la enseñanza de las ciencias. (pp. 165-186). Alcoy: Marfil.

Jimenez, M.P. et al. (2009). Actividades para trabajar el uso de pruebas y la argumentación en Ciencias. Proyecto Mind the GAP. Universidade de Santiago de Compostela. Danú.

Molina, M.E. (2012). Argumentar en clases de ciencias naturales: una revisión bibliográfica. III Jornadas de Enseñanza e investigación en el campo de las Ciencias Exactas y naturales. Facultad de Humanidades y ciencias de la Educación. Universidad de la Plata, La Plata.

Berritzegune Nagusiko argitalpenak

Unitate didaktikoak egitea eta ebaluatzea hezkuntza-esparru berrian.

Webguneak:

Curriculum Gunea. Eusko Jaurlaritzza.